

B

BARREN

TOKIKOM

A portrait of an elderly man with glasses, wearing a dark blue cardigan over a light-colored checkered shirt. He has his arms crossed and is looking directly at the camera. The background is slightly blurred, showing a building and some foliage.

Saria ekintzailetasunari

Sabin Osorok Gure Balioak saria jaso du



ESKERTZA

JULIAN IRIONDO BERGARETXE

*Uso zuriaren antzera joan zara ihesi gure artetik:
lasai, pozik eta aske.
Beti gurekin izango zaitugu hegaldi eta
lurreratze bakoitzean, aitxitxa,
orain arte bezala.
Eskerrik asko.*



*2014ko urriaren 23an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*




ESKERTZA

KARMELE ABAITUA BASTERRETXEA

*Ezin ikusi, baina bai sentitu.
Joan zaren arren,
gure bihotzetan beti egongo zara bizirik.*

Zure familia



*2014ko urriaren 26an hil zen Donostian, 78 urte zituela. Haren oroimenez meza izango da,
zapatuan, azaroak 8, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*

Zuen oroimenak indartzen gaitu



V. URTEURRENA
JUANA BARRUTIA GABILONDO
2009ko apirilaren 16an hil zen



VII. URTEURRENA
RAMON CANALES TRUEBA
2007ko maiatzaren 2an hil zen



III. URTEURRENA
JULIA BARRUTIA GABILONDO
2011ko azaroaren 5ean hil zen



Amaia
Larañaga

J.Luis, gaur, barrenak hala eskatzen didalako-edo, amorrazio eta ezkortasunetik idatziko dut, nahiz eta Kike Amonarrizek dioen hizkuntzaren inguruan tonu baikorrean jardun behar dugula, errealitatea edozein izanda ere, modu alaiari emaitza eta erantzun hobeak jasotzeko ditzakegulakoan.

Akaso hala izango da, baina euskaltzaleon artean, nor ez zuen, berriro ere, amorrua sentitu duela bi aste *Egunkaria* azuia zela-eta, behin betiko amaitutzat jo zutela jakin genuenean, berez albiste ona izan arren?

“Nola lortu eguneroko albisteak eta enparauak euskaldun gehiagok euskaraz irakurtzea?”

Auzipetuek lasaitu ederra hartuko zuten, jakina, baina 11 urteotan jasan dutena (kalte fisikoak, psikikoak, ekonomikoak...) zeinek “ordainduko” du? Oraindik ez dut ez entzun ez irakurri barkamen hitzik, errespetuaz eta edukazioaz hitzetik hortzera jarduten dutenengandik.

Gainera, gogoan izan behar dugu hau ez dela euskalgintzak jasan duen eraso bakarra, besteak beste AEKn, ederki asko dakigu horren berri, eta, zoritxarrez, gaur egun ere, jasaten ari gara (Nafarroako liburuak, Ziburuko ikastola...), eta honen guztiaren aurrean amorrua sentituagatik, jakinda hori ez dela batere ona osasunerako, elkarbizitzarako..., Kikereri jarrerari kasu egin beharrean naiz, eta *Egunkaria* itxi bazuten ere, hortxe dugu egunero *Berria*, niri munduaren berri izateko asegarri zaidana. 55.000 irakurle “baino ez” omen gara (Kikereri ikuspegiari ihes eginda, berriro) eta, askotan, neure inguruan bertan galdetzen dut ea zer dela-eta ez duten *Berria* irakurtzen (kopuru hori bikoiztuko bagenu, amorrazioa beste batzuek sentituko luketelakoan nago) eta erantzunak askotarikoak izaten dira.

J.Luis, zeuk ere *Berria* irakurtzen duzu, eta ahaleginak egingo dituzu ingurukoek ere irakur dezaten, baina nola lortu eguneroko albisteak eta enparauak euskaldun gehiagok euskaraz irakurtzea? Merezki du, ezta?



Jose Luis
Azpillaga

Ulertzen dut zure amorrua eta ezkortasuna. Neu ere askotan haserre eta umore txarrez jarririk izan naiz euskararen eta euskalgintzaren aurkako erasoaren aurrean, eta triste antzean euskaldunon ezintasun eta ahuleziez jabetzean. Horregatik, nik ere asko eskertzen dut Kike Amonarrizen ikusmira baikorra, eta sinesten dut jarrera hori egokia dela aurrera egingo badugu.

Zure galderari erantzunez, gauza gutxi esan nezake nik. Seguru nago *Berria*, *Argia*, *BAURREN* eta idatziko hedabide guztietako arduradunak irakurle gehiago lortzeko bideez hausnartzen ari direla aspalditik. Areago, nire ustez, euskal hedabideetakoek ez ezik, erdal egunkari eta aldizkarietako arduradunek ere antzeko kezka izango dute buruan; izan ere, oro har, irakurleak galtzen ari direla diote guztiek. Haiei galdetu beharko zenieke.

Ni neu, paperezko egunkari zalea naiz. Niretzat plazer bat da goizero *Berria* hartu eta lanerako bidean, trenean, eguneko albisteak eta iritzi-artikuluak irakurtzea. Baina konturatzen naiz inguruan jende gutxi hartzen duela egunkariarik esku artean. Orain, jendea eskuko telefonoari edo tabletari begira joaten da gehienbat. Okertzeko beldurrik gabe, esango nuke gaur egun inoiz baino gehiago irakurtzen dela. Beste kontu bat da zer irakurtzen den. Agian, gaur egun irakurle gehiago lortzeko, ezinbestean, apustu handia egin beharko litzateke Interneten euskararen presentzia ziurtatu eta indartzeko.

“Ez dakit. Sektore estrategikoa da, baina, eta zuhurkeriarik gabe zaindu beharko genuke”

Argi dagoena da euskal hedabide idatziek berebiziko garrantzia dutela euskararen normalizazioan. Ezinbestekoak dira euskara modernizatu eta gizarteratzeko; material bikainak eskaintzen dizkigute euskara irakasleoi, eta lagun apartak dira euskaraz ikasteko eta alfabetatzeko. Beraz, sektore estrategikoa dugu, eta mimoz eta zuhurkeriarik gabe zaindu eta lagundu beharko genuke bai euskaldunok, bai Administrazioak.

ESKERTZA

MARI PAZ RODRIGUEZ RAMILA

2014ko urriaren 27an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi,
Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Aina
Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti
Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute,
Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskualdeko Topografiak

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Hausnarketatxo bat

Azken gertakariak, sututa, haserre, kezkatuta eta triste utzi nau. Guraso eta herritar naizen aldetik, kezkatuta naua gertatzen ari denak, ezin direlako normaltzat hartu larunbat arratsaldetan gertatu ohi diren liskar, burruka eta lapurretak, eta zoritxarrez, horretara ohi-tzen hasi garelako.

Haserre, araudiak besazpitik pasatzen ditugulako komenentzien arabera eta horiek betetzeko direlako.

Oso haserre, bisitan etorri eta *fexxoriarik* handiena egin eta gero lasai asko lotara doazenekin, norbera egunetarako gorputzaldi txarrakin gelditzen den bitartean. Beldurrez.

Sututa justiziarekin, ezin ulertu dezakedalako haren erantzuna. Protokolo lartxo eta emaitza gutxi sumatu ditudalako. Norberak baitirudi errudun.

Inpotentzia, ezin delako ezer egin alde hortatik.

Eta bereziki, eta azkenik, triste. Ez al gara gai izango honi buelta emateko? Hau al da gure gazteentzat nahi duguna?

Elgoibar lasai eta osasuntsuago baten aldeko apustua egin nahi nuke nik. Nola? Ez dakit. Baina posible dela sinisten dut. Behin entzun nuen, zerbait nahi duenak bideak bilatzen dituela, nahi ez duenak... aitzakiak! Has gaitetzen ba bidea egiten.

I.A. C

Normaltasun itxurak

Egunkaria auzia itxi dela irakurri nuen aurreko BARRENen alean. Tartean, Guardia Zibilarren jarrera ere aipatzen zen.

Harriduraz irakurri nuen 2014/04/11ko BARREN astekarian Kilimon Trail lasterketara Guardia Zibil bat eta militar bat gonbidatu zizutela, eta gainera, BARRENek horiei propaganda egitea.

Lasterkari apartak direnik ez dut zalantzan jartzen, prezeski horregatik fitxatu dituzte gorputz armatuek, beren itxura ankerra zuritzeko. Lasterkari onak publikoki federaziotik mantendu beharko lirake normalean, eta kasu honetan ondo egindako amua irentsi dugu!

Ziur naiz gonbidatu dituztenek Israelen sarraskia ikusi ondoren Palestinarekiko elkartasunagatik Maccabiri boikota egitea onesten

dutela (eta saskibaloi jokalaria zibilak dira!). Zergaitik orduan ez dute espainiar gorputz armatukoeri boikota egitea pentsatu, zuzenean eragiten digun arren?

Zer pentsatuko ote dute Ziardan lurperatutako familiakoek, edo *Egunkaria auzian* torturatuek, hau ikustean?

Gogoeta osoa blogean:
<http://pirukeriak.blogspot.com.es/>

Arkaitz Irueta C

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez

Lerro hauen bidez *Bateragune auzian* kartzelatutako senideok eskerrak eman nahi dizkizuegu urriaren 11n egin genuen manifestazioan parte hartu zenuten guztioi. Manifestazio jendetsua izan zen, eta izugarri poztu ginen hain espektro zabaleko jendea batu ginea ikustean. Bihotz-bihotzez, beraz, mila esker Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak egindako deialdira batu zineten guztioi.

Bateragune auziko senideak C



Lekueder parkean ez dago zakarrontzi nahikorik: “Ez daki-gu zer gertatzen den Elgoibarren, baina leku askotan falta dira zakarrontziak. Lekuederren zakarrontzi bakarra dago, eta asteburuetan bereziki, bete-beteta egoten da; eta gainezka ere egiten du sarri. Jende asko ibiltzen da Lekuederren, eta zakarrontzi bakarrarekin ez da nahikoa. Eliza inguruan badago besteren bat, baina ez dago erabiltzaileen eskura. Eskertuko genuke parkean bertan beste zakarrontziren bat jartzea”. Rikardo Garatek esan du aztertuko dutela gaia, eta beharrezkoa bada, jarriko dutela beste zakarrontziren bat.



Musika Eskola parean burni bat egoera arriskutsuan dago: “Lekueder parkeko zutabe batean izkin bat hondatuta dago, eta burni bat egoera oso arriskutsuan dago. Kontuan izan behar dugu Musika Eskola hortxe parean dagoela eta ume asko ibiltzen direla bertan jolasean. Ezbeharren bat gertatu aurretik konpontzea eskertuko genuke”. Rikardo Garate Hirigintza arduradunak esan du begiratuko dutela eta lehenbailehen konponduko dutela.



Arrisku mezuak errespetatu egin behar dira: “Joan zen astean Maltzagarako bide gorria itxita egon zen zenbait egunetan, mantu lanak egin behar zituztelako. Bide gorriaren hasieran jarri zuten kartela, eta jendeari ez pasatzeko eskatzen zitzaion han. Hala ere, jende asko ibili zen pasiaran edo korrika, abisuari jaramonik egin gabe. Zorionez ez zen ezer gertatu, baina gertatu izan balitz, zer? Horrelako mezuak eta kartelak errespetatu egin behar dira”.



Ubitarte inguruko OTA-TAO sistemak ondo funtzionatzen du: “Pare bat aldiz irakurri dut Ubitarte inguruko OTA-TAO sistemaren kontrako kexa, eta nik txalotu egin nahi dut. Lehen Correos-era edo udaletxera tramiteren bat egitera joateko bi edo hiru aldiz pentsatu behar izaten genuen, han sekula ezin zelako aparkatu. Orain, aldiz, lasai irteten gara enpresatik edozein mandatu egitera. Baserrietatik edo enpresetatik kalera joan behar dugunoi asko erraztu dizkigu lanak OTA-TAO sistemak”.



ESKERTZA

JOSE MARI AGIRREGOMEZKORTA IBARLUCEA

2014ko urriaren 31n hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Frankismoan desagerrarazitakoen kolunbarioa Elgoibarren egin nahi du Eusko Jaurlaritzak

“Egian, justizian, erreparazioan eta berriz ez gertatzeko bermean” oinarrituta dago egitasmoa

Memoria Historikoaren Arloko Lehentasunen Oinarri Programa aurkeztu zuen martitzenean Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak. Guztira hamabi proiektu ditu programak, horietako bost berriak, eta tartean bada bat Elgoibarri lotutakoa. Urkulluk aurreratu du Duintasunaren Kolunbarioa egin nahi duela Jaurlaritzak Elgoibarren, eta bertan, 1936 eta 1976 artean desagerrarazitako pertsona ezezagunen gorpuzkinak bildu nahi dituztela –errauts kutxak gordetzeko horma hobiak biltzen dituen eraikuntza da kolunbarioa-. 36ko gerratik Francoren diktadura amaitu arteko biktimak oroitu nahi ditu Jaurlaritzak, “gertatu zen injustizia historikoaz ohartarazi eta berriro halakorik gerta ez dadin”.

Programaren aurkezpenean Urkulluk, azaldu zuen gaiaren inguruan dauden egitasmoak bateratu dituztela eta eman diela proposamen honen berri Eusko Legebiltzarreko taldeei eta memoria historikoaren alorrean lanean ari diren elkartei, eta haien ekarpenak jasotzeko gertu daudela orain. Momentuz, zortzi lehentasun finkatu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta hamabi proiektu jakinarazi. Proiektu horietako bat da Elgoibarren egin asmo duten Duintasunaren Kolunbarioa. Urkulluren berbetan Elgoibar leku esangura-



tsua da 36ko gerran, eta horregatik aukeratu dute Elgoibar kolunbarioa jartzeko. Joan den irailean Zirardamendin gudariei egin zieten omenaldian esandakoak berriz gogora ekarriz, Urkulluk esan zuen Aiasiako fronte lerroan tropa frankistak geldiarazteko ahaleginak ahalbidetu zuela lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eraketa. “Borrokaldi hori gabe gaur ez litzateke Jaurlaritzarik eratuko”, esan zuen lehendakariak. Duintasunaren Kolunbarioa sortzeaz gain, Argentinan abiarazi duten kereilari babesu agertu eta frankismoaren biktimenzako aitomen-ziurtagiria sortu nahi ditu Jaurlaritzak.

Euskal preso eta iheslarien aldeko Sare herri-sarea sortu dute Mendaron ere

Euskal preso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetuko duen herri sarea ehuntzea da Sare izeneko egitasmoaren helburua. Joan den ekainean aurkeztu zuten Donostian eta herritarrei konponbidearen parte izateko deia egin zieten sustatzaileek. Deia erantzunez, Sarea batzea erabaki dute zenbait mendarorrek, “konponbidearen amarauna josteko”. Euskal preso eta iheslarien etxeratze ahalbidetuko duen norbanakoen sare herritarra sortu nahi dute Mendaron, “aniztasunean, elkartasunean eta errespetuan” oinarrituta. Hainbat arlotan diharduten mendarorrek sinatutako idatzia kaleratu dute, eta idatzian diote aniztasunetik gutxieneko batzuk adostu eta hortik giza eskubideen urraketak amaitzeko dinamikak lantzea dutela asmoa. Egitasmoaren aldeko atxikimenduak batzen dihardute egunotan, eta gaur, azaroak 7, talde-argazkia egingo dute plazan, 20:00etan. Argazkira batzeko deia egin diete herritarrei. Adierazpena osorik irakurtzeko, sartu www.elgoibarren.net webgunean, Sareri dagokion albistean.

Jaime Arrese oroitu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Jaime Arrese UCDko batzarkide ohia omendu zuten urriaren 23an, Komando Autonomo Antikapitalistek hil zutela 34 urte bete ziren egunean, [1980ko urriaren 23an]. Arreseren aldeko omenaldia Batzar Nagusien atarian egin zuten, batzarkide ohiaren omenez bertan jarrita dagoen plakaren aurrean [bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net]. Carmen Araolaza alargunak, Jaime semeak, Fermín eta Carmen anai-arrebek, eta ordezkari politikoa ugarik hartu zuten parte omenaldian: Lohitzune Txarola Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea, Martín Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Marina Bidasoro Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendariak, eta Batzar Nagusietan ordezkari zuten talde guztietako ordezkariak.



Ospakizunak **Odol emaileak**



Debabarrenako odol-emaileek jai egun handia izan zuten urriaren 25ean, Eibarren. 25 aldiz baino gehiagotan odola eman dituztenak nabarmendu zituzten Arrate hotelean egin zuten bazkarian. Domina eta diploma bana jaso zituzten nabarmendutakoek, tartean argazkiko elgoibartar hauek. Odola ematearen garrantziaz ohartarazi zuten ekitaldian.

Ikastaroa **Gurasoentzako tailerra**

Gure seme-alabak heziz: zoriontsuago izateko emozio-estrategiak izenburuko ikastaroa antolatu du Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak. Azaroaren 10, 17 eta 24an eta abenduaren 1ean izango dira eskolak Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan, 18:00etatik 19:30era. Teresa Alonso psikologoak emango du ikastaroa. Emozioak ezagutu, ulertu eta modu egokian erabiltzeak gure bizitzan eraginkorrakoak izaten laguntzen duela dio Alonsok eta ezaguera hori seme-alabei erakusteko bidez hitz egingo du. Ikastaroan parte hartu ahal izateko izena eman behar da azaroaren 9a baino lehen. Izena emateko: kalamua@google-groups.com.

Azaroaren 12an amaituko da Errigoraren udazkeneko kanpaina

Eguaztenean amaituko da Errigoraren udazkeneko kanpaina. Eki-menari laguntzeko Elgoibarren eratu den lantaldeak jakinarazi duenez, eguaztenean Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan jarriko dituzte salgai Nafarroako Erriberako produktuz betetako otarrak, 17:00etatik 19:30era. Otarrak eskuratzeko modu gehiago ere badaude, hala ere. Posta elektronikoz bidez ere egin daitezke eskaerak (elgoibar.errigora@gmail.com), izen-abizen eta telefono zenbaki bat jarritz, eta baita Elgoibar Ikastolan, Danobat lantegian, AEK euskaltegian eta Elgoibarko Izarran ere.

Errigora ekimenak bi helburu ditu: batetik, Nafarroako Gobernuak ez euskalduntzat ez duen eremuan euskararen alde ari diren euskalgintzako proiektuei laguntzea, eta bestetik, Nafarroako Erriberako nekazariei laguntzea, Euskal Herrian ekoiztutakoa Euskal Herrian kontsumitzearen bitartez. Nafarroako Erriberako produktuz betetako otarrak 50 euroan saltzen dituzte eta jasotako diruaren %25 Nafarroan euskalgintzan diharduten elkarteetara joango da.



ESKERTZA

SABINO URBIETA BARRENETXEA

*Udazkena Arnon itzuli bueltan,
azken zirrara oraindik gertuan,
Sabin gurekin beti goguan.*

2014ko azaroaren 1ean hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Asier Lizarralde Arrillaga elgoibartarrak irabazi du gazteentzako Asmaola+ enpresa industrialen ideia lehiaketa

Zuhaitzak inausteko makina automatiko batekin irabazi du saria

Asier Lizarralde elgoibartarraren lana saritu du Asmaola+ enpresa industrialen ideia lehiaketako epaimahaiak. Zuhaitzak inausteko makina automatiko aurreratua aurkeztu zuen Lizarraldek, sei metro-tik gora dauden adarrak inausteko balio duena, eta epaimahaiaren arabera. Lehiaketa hau Lanbide Heziketako ikastetxeen sareak antolatzen du, Elgoibar-ko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jauriaritzaren laguntzarekin eta Danobat Group, Alcorta Forging Group, Grupo Schaeffler, Grupo Egile, Grupo Maherholding eta Unceta S.A. burdindegia- ren babesarekin. Lizarraldek 2.500 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu, 100 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 300 ordu beharrezkoak dituen baliabide industrialak erabiltzeko.



Javier Nuñez PPko zinegotziak uste du Udalak ez zeukala 4.000 euro erabili beharrik “Gaztetxeak ez duela funtzionatzen ikusteko”

Gaztetxeak behar bezala funtzionatzen ez duela begibistakoa da Javier Nuñez PPko zinegotziaren arabera, eta horregatik, eta Udalak gazteen aisiari buruzko ikerketari aipamen zuzena eginez, Nuñezek esan du gehiegizkoa izan dela Udalak 4.000 euro gastatu izana “Gaztetxeak ez duela funtzionatzen ikusteko”. Hala ere, eta ikerketa horrek Gaztetxea herriko “gazte guztiei” zabalteko balio badu “ongi-etorria” izango dela zehaztu du. Nolanahi ere, zaila ikusten du hori gertatzea: “Irtenbidea topatzea zaila ikusten dut EAJren gobernua eta Gazte Asanblada ari direlako negoziazioetan. Zaila ikusten dut Gaztetxea sekula izan ez dena izan eta batzuek sekula izan nahiko ez luketena izateko: denentzako espazio bat”.

Zerga eta tasa gehienei bere horretan eutsiko die Elgoibarko Udalak

2015erako ordenantza fiskalak onartu zituen Elgoibarko Udalak hileko azken udalbatzarrean, eta bigarren urtez jarraian, zerga eta tasa gehienei bere horretan eustea erabaki zuten, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. EHBilduko zinegotziak eta PPkoa abstenitu egin ziren bozketan. EHBilduk, bestalde, gogor gaitzetsi zuen etxebizitzaren alokairua bultzatzeko aurkeztu zuen proposamena. Etxe hutsak merkaturatzeko programa bat jartzea proposatu zuen bere garaian EHBilduk, horretarako etxe hutsak dituztenei Ondasunen Gaineko Zergan %50eko errekariguta ezarrita.

Orokorrean ordenantza fiskalak izoztu bazituzten ere, salbuespen batzuk izan ziren. Ondasun higiezinaren gaineko zergan, esate baterako, lurzoru industrialean kokatutako ondasunengan aplikatzen den tipoan %8ko igoera aplikatzea onartu zuten, azkeneko hiru urteotan egin dutena jarraituz. Gainerako udalekin parekatze aldera proposatu zuen igoera hori EAJk. EHBildu ados agertu zen igoerarekin, baina ez zenbatekoarekin. Koalizioaren iritziz, %8koa beharrean %20koa beharko luke izan igoerak, tamainaz Elgoibarren antzerako herrietan dauden enpresek ordaintzen duten kopuruekin parekatzeko. Javier Nuñez PPko zinegotziak, berriz, zergak are gehiago jaisteko aukera dagoela adierazi zuen, eta era horretan arrazoitu zuen bere abstentzioa.

San Lazaro zahar egoitzaren tarifa ere %3 igoko da aurtun. Iaz izoztu egin zuten, baina eskainitako zerbitzua kostua baino baxuagoa zela konturatu ostean hartu dute tarifa igotzeko erabakia.

Salbuespenekin jarraituz, zaborren tasan %1eko igoera ezarriko dute 2015erako (iaz %0,8koa izan zen). Hori bai, Udalak zaborren tasaren gaineko %20ko hobaria emango die “bosgarren edukiontzia, gutxienez, urtean 40 aldiz erabiltzen dutenei eta konposta egiten dutenei”. Hala, baldintza horiek betetzen dituztenek urtean 30 euro gutxiago ordainduko dituzte. Izan ere, bosgarren edukiontzia erabiltzen duten elgoibartarrek 152 euro ordainduko dituzte 2015ean eta 182 euro gainerakoek.garrisuna eztabaidagai



(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoako
BERRIA

JON GURRUTXAGA

MUSIKARIA



Jon Gurrutxagak bakarkako estreinako lana kaleratu du: 'Hitz lauz'. Bakarka, baina lagunenez inguratuta osatu diskoa. Mikel Azkargorta, Iñigo Gorritxategi, Gorka Eskauriaza, Keu Agirretxea, Muguel Laguna eta Patxi Zabaleta elgoibartarra izan dira, besteak beste, diskoan parte hartu duten musikariak, eta kolaborazio horiei esker, kanta bakoitzak bere nortasuna hartu du. Blues doinuak erabat baztertu gabe, rock semiakustiko estiloan konposatu ditu kanta gehienak. Hamar abestiko bilduma prestatu du Gurrutxagak, eta oraingoan ingelesa albo batera utzita, euskaraz abestuko ditu, Xabi Lasa, Uxue Agirre eta Iñaki Gurrutxagaren laguntzarekin osatutako letrak. Ia bi hamarkada daromatza Gurrutxagak musikan. Arima Beltza, Jon & Sugramas eta Bikustik proiektuetan ikusi dugu orain arte, eta aurrerantzean, bakarkako etapari ekingo dio. Estreinako kontzertua Gautegiz Arteagan (Bizkaia) eskainiko du, azaroaren 28an.

**“Bakarka,
baina lagunekin
sortu dut diskoa, eta
horregatik lortu dut
hain soinu jantzia”**

'Hitz lauz' izena jarri diozu bakarkako estreinako lanari. Zer aurkituko dugu diskoan?

Rock semiakustiko estiloko diskoa da. Rock ikutua dute abestiek, baina rock lasaia da. Akustika oso presente dago abestietan, eta orain artekoak baino intimistagoa da. Poperantz edota blueserantz jotzen duten abesti batzuk ere badira, baina rock soinua da nagusi. Abestiak etxean sortu ditut gitarra akustikoarekin, eta horregatik irten zaizkit lasaigoak.



Zer dela-eta erabaki zenuen bakarkako etapari ekitea?

Bizitzako momentuak eskatzen dizuna da. Beti jardun izan dut talde baten babesean, baina Jon&Sugramas taldearen proiektua ere nik neuk sortu nuen, eta gero joan nintzen proiektu hura osatzeko lagunerekin. Urtebeteko jardunaren ostean, taldea berregituratu behar izan nuen. Denon egoera aldatu zen ordurako, eta eten moduko bat izan zuen taldeak. Une horretan hasi nintzen abestiak etxean konposatzen gitarra akustikoarekin. Hura izan zen bakarkako lan honetara iristeko lehen pausoa. Lokalean taldearekin batu, abestiak sortu, entsegatu... Etapa hura bukatu zen niretzat. Baina musikan modu aktiboan jarraitu nahi nuen, musika nire bizitzan oso garrantzitsua delako, eta bide horretan aurrera egiteko nolabaiteko askatasuna behar nuen, autonomia izateko. Kontzertuak emateko aukera gehiago eskaintzen du horrek. Talde batean, denak doaz edo ez doa inor, eta bakarrik, aldiz, beti dago musikariren batek ezin badu beste bat aurkitzeko aukera. Nik musika izugarri bizi dut, musikarik gabe ez nintzateke, ni izango eta ezin nintzen etxean geratu. Egia da Bikustik proiektuarekin aktiboan jarraitzen dudala Patxiarekin [Zabaleta], baina horiek ez dira gure kantak eta musikariok badaukagu gure kanta propioak sortzeko eta erakusteko grina.

Bakarka baina lagunerekin inguratuak sortu duzu diskoa.

Bai, hala da. Nire lehenengo asmoa osabaren ganbaran mikrofono batekin abestiak nik neuk grabatzea zen. Modu akustikoan sei bat abesti grabatzeko asmoarekin hasi nintzen, baina kantak sortu ahala, jantzen hasi nintzen, eta laguneri hasi nintzen arregioak eskatzen. Baxua joteko eskatu nion bati, gitarra elektrikoa beste bati... Eta azkenean kolaborazio pila bat izan ditut. Lagunekin osatutako diskoa da, eta lagun horiek gabe ez nukeen soinua hori lortuko. Laguneri esker lortu dut soinua jantzi hori.

Hamar abesti, eta denak euskaraz oraingoan. Zergatik aldaketa hori?

Jon&Sugramas taldearekin ingelesez abesten nuen, eta ni oso gustura sentitzen nintzen ingelesez abesten. Nik entzuten dudana musika gehiena ingelesezkoa da, eta egin izan dugun musika estiloa ere ingelesari oso lotuta dago, baina konturatu nintzen proiektu hark ez zuela izan horrenbesteko ohiartzunik. Jende batek Arima Beltzarekin lotzen ninduen oraindik, eta Jon&Sugramas ez zen publiko horrengana iritsi. Rockzaleek ezagutzen zuten taldea eta jarraitu ninduten, baina Arima Beltzak espektro zabalagoa hartu zuen, eta hizkuntzarengatik izan zitekeela pentsatu nuen. Horregatik erabaki nuen hurrengo lana euskaraz egitea, eta horrez gain, baita euskara delako nire hizkuntza eta gusatzan zaidalako musika nire hizkuntzan egitea.

Musikariez gain, abestiak idazteko ere laguntza izan duzu.

Hamar abestitatik hiru dira nik idatzitakoak. Nire bizi esperientzietan oinarritutako bi idatzi ditut orain, eta beste Patxi Zabaletarekin idatzi nuen Arima Beltza talderako. Gainerakoetan laguntza izan dut: bost abesti Xabi Lasa Ikastolako nire lankideak idatzi ditu. Euskal filologoa da, idaztea gustatzen zaio eta bere laguntza eskaini zidan bere behar esan nion baietz. Ni lanpetuta nengbiltzen, denboraz larri eta oso ondo etorri zitzaidan bere laguntza. Primeran moldatu gara, gainera. Musika prest neukanean bidaltzen nion, eta berehala jartzen zizkion hitzak. Beste kanta bat Iñaki Gurrutxaga Orioko bertsolari eta musikariak ida-

tzi du Xabi Lasa berarekin, eta azkena Uxue Agirrek idatzi du, nire lagun baten arrebak. Ondo moldatu naiz denekin, inork ez dit arazorik jarri aldaketak edo moldaketak egiteko eta oso ondo geratu dira. Letra gehienek inflexio puntu bat adierazten dute. Orain artekoa bukatu da eta beste etapa baten hasieran nago, eta hori igartzen da abestietan. Momentuko bizipenak bizitzeko egoerak azaltzen dira.

la bi hamarkada daramatzazu musikan. Nolako eboluzioa izan duzu denbora horretan?

Kantak sortzeko modua asko aldatu da. Baterijole-abeteslari moduan hasi nintzen Arima Beltzan, eta gitarrajoleari *reef*-ak ahoz kantatzen nizekion. Hor hasten zen kanta, eta gero denon artean ematen genion forma. Gerora gitarra hartu nuen konposatzeko, eta Arima Beltzaren azken lanean bazeuden kanta batzuetan nik sortutako armoniak. Orain gitarra apur bat gehiago menderatzen dut, eta horri ahotsa gehituta kantak sortzeko gai naiz. Arima Beltzaren hasierako maketa hura grabatu genuenetik urte asko pasatu dira, eta igartzen da. Abesteko modua, abestien konposizioak eta soinua bera oso desberdinak dira. Gauzak eta garaiak aldatu egin dira, baina nik hasierako ilusio berberekin jarraitzen dut.

Arima Beltzarekin ezagutu zintugun, eta zure ahotsak atentzioa eman zigun. 'Euskal rockaren ahots berezia' bezala definitu zaituzte Interneteko atari batean ere.

Bai, harritu egin ninduen hori irakurtzeak, baina ilusioa egin zidan. Ez dakit nire ahotsa berezia den, baina desberdina bada. Jende gutxi abesten du modu horretan, baina musika estilo hau ere jende gutxi egiten du hemen, eta are gutxiago euskaraz. Horregatik egiten da nire ahotsa berezia, beharbada. Dena dela, disko

honetako kantak lasaigoak direnez, tonua ere grabatzea da.

Lan handia izan da diskoa grabatzea?

Bai, luze joan da. Iazko udan erosi nuen mikrofonoa, eta orduan hasi nintzen abestiak konposatzen eta grabatzen. Baina neure burua grabatzea oso nekagarria zen, eta azkenean ikusi nuen estudio batean grabatzea izango zela onena. Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dut. Hango tekniko organo-jolea da gainera, eta berak egin ditu hammond eta piano kolaborazioak. Lan gogorra izan da, baina emaitzarekin oso gustura geratu naiz.

Zuzeneko emanaldietarako nola moldatuko zara?

Sugramasak izango ditut alboan: Ruben Irigoien elgoibartarra baterian, eta Iñigo Gorritxategi eta Miguel Laguna mutrikuarrak egongo dira baxuan eta gitarran. Aretoaren arabera, Jon Gurrutxaga Band bezala edo bikote bezala joango naiz Miguel Lagunarekin. Estreinako kontzertua Gauegiz Arteagako gaztetxean eskainiko dugu azaroaren 28an. Abenduaren 5ean Urretxuko Motz tabernan izango gara, eta 12an Mutrikun. Abenduaren 6an Durangoko Azokan aurkeztuko dut diskoa.

Non erosi daiteke diskoa?

Tantaka eta Iratxo tabernetan salgai daude, eta Pitxintxura ere iritsiko dela uste dut. Horrez gain, Internetez ere erosi daiteke Gaztelupeko Hotsak disketearen webgunean, eta nire bandcamp orrian ere formatu digitaletan erosteko aukera dago.



Sabin Osoro

GURE BALIOAK SARIDUNA

Arg.: Debegesa

Lanerako ez du sekula nagirik izan Sabin Osorok (Elgoibar, 1922). Gizarte eta enpresa alorreko hamaika ekimenei lotuta ageri da bere izena Elgoibarren, eta ekintzaitetasun hori, lanerako agertu duen “izaera nekaezina eta adoretsua”, nabarmendu ditu Gure Balioak sariketako epaimahaiak. Eguaztenean jaso zuen saria, Mutrikun, iazko saridun Carmelo Ur-dangarinen eskutik. Elkarrizketa osoa: www.elgoibarren.net webgunean.

“Herriaren alde egin dut egin dudan guztia, eta pozik nago”

Zer esan nahi du zuretzat sari honek?

Poz handia eman dit nirekin akordatzek.

Zure izaera “adoretsua” nabarmendu du epaimahaiak, eta zeure garairako aurreratua izan zarela esan du; “izaera bisionarioa” izan duzula alegia, eta burubelari jardun duzula lanean, “protagonismoa izkin eginez”. Ez dira edozelako berbak.

Gehiegitxo ere izango da hori. Beharbada izango nuen izaera bisionarioa ere, baina sekula ez dut pentsatu halakorik. Herriaren alde egin dut nik egin dudana, eta pozik nago.

Zure lehenengo aipamenak Elizari lotuta

agertu zaizkit.

30 urte nituela, 1952an, Luistarren presidenten aukeratu ninduten [Elizako gazte gizonezkoen kongregazioa], eta gero, JOC *Juventud Obrera Catolica* (Gazte Langile Kristauak) taldeko presidente izendatu ninduten. Gizon eliztarra izan naiz ni. Elizaren bueltako taldea zen JOC ere eta akordatzen naiz gaixoei laguntzeko kinielak eta sortu genituela. Behin, salaketa bat ere jari zuten gure kontra, legez kanpokoa zelako hori, eta sarjentuak deitu zidan 2.000 pezetako isuna geneukala esanez eta hamabost egunen barruan ordaindu be-

har genuela ohartaraziz, bestela kartzelara eramango ninduela eta. 2.000 pezeta dirutza zen orduan eta errekurritu egin genuen Madrileren. Nire ondorengo presidentek ordaindu zuen gero. JOCekin Erromara ere iritsi ginen. JOCen biltzar antzeko bat egin zen han, eta dantzarako aukeratu gintuzten gu, sekula inon dantzarik egin gabeak. Hiru hilabete lehenago esan ziguten zortzikoa dantzatu behar genuela Erroman, eta ibili ginen ikasten. 300.000 lagun aurrean egin genuen dantzan, egunkarien arabera. 1957an izan zen hori.

JOCen bilera batetik sortu zen gero Ongarri Kultur Elkartearen. Frankismo garaia zen, eta hemen ez zegoenez ez alderdi politikorik, ez sindikaturik eta ezta ezeren gaineko mugimendurik ere, kultur elkarte bat sortzea proposatu nuen, eta baietza eman zidaten.

Gizon eliztarra zara. Eliza 2000koekin bat egin duzu, "Herriaren eliza" bultzatu nahi dutenekin, "ebanjelioaren aldarrikapen askatzailearekiko leiala eta herriaren sufrimenduenkin solidarioa" den Eliza nahi dutenekin.

Bai. Eliza katolikoaren hierarkia guzti horren kontra nago. Ebanjeliora makurtu behar da Eliza, apalagoa izan behar du, gertukoagoa.

Kooperatibei oso lotuta ageri da zure izena. La Elgoibarresa kontsumo kooperatiba eratu eta sustatu zenuen, esaterako. Zer zen, eta nola oroitzen duzu sasoi hura?

Denda bat zen. Bi lokal genituen: bata, Errosario kalean, eta bestea, San Frantzisko kalean. Ez dakit zenbat urtez izan nintzen hango presidente, eta gero, laga eta sei-zortzi bat urtera, zuzendaritza talderako aukeratu ninduten. Gaizki zebilen oso kontsumo kooperatiba, ia-ia zulora joateko arriskuan, eta eskatu genion Eroskiri berak hartzeko, baina eurek ez zirela ospitala erantzun ziguten. Garai zaila izan zen. Presidente aukeratu zutenak uko egin zion karguari eta bigarren boto gehien lortu zuenak ere ez zuen ardura hartu nahi izan. Hala, neu jarri nintzen, norbaitek jarri behar zuela eta. Laga zuenak ere esan zidan zaila izango nuela hura zuzentzen, baina zortea izan nuen biltegiko langileetako bati, gizon jatorra bera, erretiroa hartzea tokatzen zitzaiolako eta beste batek lana laga zuelako. Hala, lantaldea murriztuta txikitu genituen gastuak. Sufritu nuen itzel orduan. Atera kontuak zer konpromisotan sartu nintzen soldatarik ere ez kobratzeko! Dena zen buruhaustea! Eman genion buelta, baina; hasi ginen irabazten, eta hartu gintuen Eroskik.

Ongarri aipatu duzu. Ilusio bat bete zenuen Elgoibarren kultur elkartearen sortuta. Nola oroitzen dituzu hasierako urte haiek?

Hasi beti egiten da bat ilusioarekin, baina errazetik gutxi izaten dute hasieretik. Gogoratzten dut konferentziak eta antolatzen genituela Maalako lokalean. Behin ekarri genuen iruindar bat [Rikardo Alberdi], oso ona bera, Marxismoaren gainean berba egitera. Apaiza zen, baina goraiatu zigun Marx; Jesukristoren ondorengo gizonik inportanteena zela esan zigun. Euskal Jaia antolatzen ere geu

hasi ginen. Politikan ez ziren garai errazak, baina ez dut uste ezer txarrak pasatu zenik.

Kartzelara joateko mehatxuek ere ez zintuzten kikildu. Elgoibarko Izarraren sorreran ere zure izena ageri da, beste batzuenen ondoren. Bizi da zuen proiektu hori ere.

Bai, eta poza ematen du, norberak ilusioz bultzatutako zerbaitek oraindik bizi eusten diola ikusteak. Euskara eta euskal kulturaren alde egiteko sortu genuen Elgoibarko Izarra eta lagundu genuen Ikastola bera ere.

"Diru zaletasunak itsutu gaitu. Herriaren alde ere ez da egiten gaur doako lanik"

Izpi ezinduei zuzendutako lantegia ere sortu zenuen eta DEE Drogak Eragindakoen Elkar-tearen bueltan ere aritu zinen lanean.

Emaztearen ideia izan zen Izpi. Ezinduei laguntzen ibiltzen zen, eta behin joan zen Bergaran zabaldu zuten tailer bat ikustera, gonbidatuta. Hain gustatu zitzaion asko proiektu hura, taldeko lagun ezinduei Elgoibarren halakoxe tailer bat sortuko zutela agindu ziela eta etorri zitzaidan neri gero laguntza eske. Udaletxean aurkeztu nuen proiektua eta Jaurilarizara ere jo nuen diru eske. 13 milioi eskatu genizkion euskal gobernari lokala erosteko, eta proiektua eskualde osorakoa egiten bagenuen emango zigutela agindu ziguten. Eta halaxe, Elgoibarrerako zena eskualde osorako egin genuen. 40 langile izatera iritsi zen Izpi. Benetan tailer polita eta proiektu garrantzitsua izan da urteetan. Drogekin, berriz, arazo handiak izan ziren Elgoibarren. Batzorde bat sortu zuten, eta emaztea ibili zen han ni baino gehiago. Nola ez genien lagunduko ba haiei! [GIB birusaz kutsatutakoek ari da] Baztertuta zeuden, eta hil ere egin ziren batzuk. Frankismoa garai zaila izan zela esan dizut, baina hau gogorragoa izan zen. Gazte jende asko gelditu zen harrapatuta eta familia asko apurtuta.

Emaztea aipatu duzu. Saritutako gizonezko askoren ondoan emakume ekintzaileak izan

ohi dira sarri. Zurean ere halaxe da itxuraz.

Bai, bai, hori beti. Ni ibili naiz batean eta bestean, emazteak horretarako aukera eman didalako. Bera ere oso idealista izan da, eta sekula ez dit trabarik jarri ezertarako. Lau seme-alaba ere izan ditugu, hori bai, eta bera arduratu da beti etxeko kontuez. Horri esker errenditu ahal izan ditut nik kanpokoak.

Politikan ere aritu zinen. Zer nolako esperientzia izan zen?

Frankismoa bukatu ostean, ESEI sortu zen Euskal Herrian eta ESEItik neu sartu nintzen zinegotzi Udalean lau urterako. Legegintzaldi hartan, gainera, gauza garrantzitsuak lortu genituen: Mendaroko ura ekartzea eta San Lazaro egoitza berritzea, besteak beste.

Emaztea ilusionista zenuen. Zu zeu ez?

Bai. Beti izan dut zerbait egin nahia herrian. Elgoibarren alde egin dut nik egin dudana guztia, herriaren alde. Kultur kontuetan, enpresa munduan, politikan... saltsa askotan jardun dut, beti herriarentzako onena zela pentsatzen nuena eginez edo ahaleginduz behintzat.

Ilusioa ere apaltzen ari ei da gaurko gizartearen. Zer duzu esateko?

Pasatzen dena da guk gure denboran ez genuela pentsatzen dirurik jasotzerik herriaren alde lan egiteagatik, eta gaur, berriz, inor ez dela lanean hasten dirurik ez badago bueltan. Idea hori nagusitu da, eta pena da. Diru zaletasunak itsututa gaitu, paralizatuta. Herriaren alde ere ez da egiten gaur doako lanik. Borondatez jardun genuen guk, zemeikorik ere kobratu gabe eta behar zenean geuretik jarri dirua.

Etxebizitza sozialen proiektu batekin ere ibili zinen tematuta.

Bost urtean hor ibili ginen batera eta bestera. Espainiako Gobernuak lur sail bat zeukan Elgoibarren hartuta, lurjabei desjabetuta [60.000 metro koadrokoa]. Lur sail horretan etxe merkeak egin nahi genituen guk, baina horretarako Udalak egin behar zuen aurrera. Gure alkateak, baina, bazituen beste interes batzuk eta geldituta eduki zuen hori. Talde bat sortu zen proiektu hori aurrera ateratzeko eta neu ere sartu nintzen kooperatiba hartan. Lur sail horretako parte bat eskatu genion alkateari, baina hark hartzekotan dena hartu behar zela erantzun zigun. Bazekien ondo hark zein garesti iriteten zen hori. Hala ere, nik aurrera egin behar genuela esan nien, hartuko genuela sail osoa. Gobernadore zibil kri-

minal batengana ere joan nintzen ni laguntza eske, eta zer diren gauzak, eskua ere eman nion! Gai hori, baina, ez zegoen itxuraz bere esku. Madrilerá ere joan ginen gero, Etxebizitza Saileko zuzendari nagusiarengana, baina hark esan zigun desjabetutako lurrak hamabi urteren barruan jarri behar zirela martxan, bestela ugabazabari itzuli behar zitzaizkiola berriz, eta gureak hamabi urte bete berri zituenean orduan. Epez kanpo ari ginen.

Nolakoa da Sabin?

Ezinegon handikoa izan naiz, ameslari xamarrá behar bada.

Danobaten sorreraz bertsio bat baino gehiago daude, baina ofizialaren arabera, zeu izan zinen enpresa sortu zuten hamasei lagunetakoko bat, kooperatiba-aurreko egitura soziatarioaren ideologoetako bat. Eguzki eta Goiti enpresen sorkutzan ere parte hartu zenuen. Denak ere kooperatibak. Bistan da kooperatiben ereduá gustuko duzula.

Nik –beste zenbaiten laguntzarekin– hasitakoak bi enpresa izan dira: Danobat eta Goiti. Danobaten koadrila handi bat ginen, hamasei bat. Sortze-bilera egin genuenean garbi esan nuen ordura arte ugazabengaitik gaizki esaka ibili ginela eta ezingo ginela gu haien pare hasi. Parteá eman behar geniela langileei irabazietan, denak bazkide eginez. Ni bai; ni beti izan naiz kooperatiba zalea.

Arizmendiarraren ikutua izan duzu zuk ere?

Harekin ere izan nintzen behin. Danobat martxan zegoela, hiru arotz etorri zitzaizkidan esanez arotzeria tailer bat sortu nahi zutela, eta baietz esan nien, baina arotzeria hutsa izan beharrean tailer mekanikoa jartzea ere komeniko litzatekeela. Banituen neure dudak, baina, eta joan nintzen Arizmendiarrarengana, hura zen orduan kooperatibaren ideologoa eta. Eta ezetz hark! Sozietate handietan egiten zela, baina txikietan bata bestek hondatu zezakeela eta hobeto zela ezetz. Apaiz hark eman zidan neri haginetakoa! [Alfonso] Gorroñogoiarengana jo nuen gero, Arrasateko industria kooperatiba mugimenduaren sortzaileetakoa zenarengana. Eta entzun nahi nuena esan zidan: baietz, aurrera egiteko. Urteak pasatu dira eta arotzak hil ziren, baina Goitik jarraitzen du.

Eta hori dena egin zenuen eskola handirik gabe. Penarik baduzu?

14 urterekin laga nuen eskola. Armeria Eskolarako nengozen izena emanda, baina urte hartan gerra hasi zen, eta jai! Lanera hasi be-



Arg.: Debegesa

har izan nuen. Osabaren lima-tailerrean egin nituen lehenengo sei bat hilabete eta Alcorta, Unzueta y Cia-ra joan nintzen gero. Ugabaza batzuk Bilbokoak ziren eta etorri ziren behin enpresara Bilbon tornulari bat behar zutela esanez eta aurkeztu nintzen, hemen irabazten nuenarekin justu-justuan bizi nintzelako. 19 urte nituen. Sekula zapaldu gabe neukan Bilbo eta joan nintzen trenean, maleta hartuta. Urtebete egin nuen Bilbon enkargatuarenean bizitzen eta 10 kilo hartu nituen. Beldurtzeko gosea eraman nuen nik! Txitarroak ere hezur eta guzti jaten nituen! Gero, soldadutzarako deitu ninduten. Hiru urte egin nituen Villaverde Alton (Madril), eta demaseko gosea pasatu nuen. Hiru bider pasatu dut gosea, eta oraindik bizirik nago!

Zer izan ote zinen gerra hura izan ez balitz!

Hori ez dakit, baina gerrak bizitza apurtu zidan. Aitak Frantziara egin behar izan zuen ihes; osaba bat, Angel Osoro, Aiestia aldean harrapatu zuten eta Hernanin afusilatu zuten eta ama beste aldera pasatzera behartu zuten, aitak ihes egin zuelako. Trenean eraman zuten eta Durangon hil zuten. Durango bonbardatu zutenean [1937ko martxoaren 31] elizan zegoen gure ama eta hantxe hil zen. Sekula ez dut ahaztuko ama joan zen eguna. Amarekin joan nahi nuen, baina guardia zibilek alto eman zidaten. Arreba eta bi anaia gelditu ginen etxean. 12 urterekin arrebak hartu zuen etxearen ardura, baina meningitisa harrapatu zuen eta hil zen. Aitxitxa Ferminek hartu ninduen gero etxean. Zazpi bat lagun bizi ginen etxe hartan ere, baina, eta neure etxera bueltatu nintzen, bakarrik. Gerra hura izan ez balitz, Armeria Eskolako titulua izango nuen eta gauza handia zen sasoi hartan! Han ibilitakoek sortu zituzten enpresa asko.

Zerbaiten damurik baduzu?

Egindakoarekin pozik nago, baina erdibidean gelditu zitzaizkigun proiektuak aurrera atera ezinaren penatxo hori badaukat. Proiektu handiak izan ditut buruan, eta beti ezin da. Albitxurin egin nahi genuena, esaterako. Kultur eta aisialdi-gune gisa katalogatuta zuten Udalak Albitxurin 40.000 metro koadroko lur-saila eta pentsatu nuen kirol-gune handi bat egitea hantxe. Sekulako proiektua prestatu nuen: futbol-zelai eder bat, bi-hiru frontoi, igerilekuak... eta kooperatiba ere sortu genuen hortarako. Jaurlaritzan eta Madrilen lortu genuen dirubabesa, eta guk geuk ez genuen diruaren arazorik ikusten, baina Jaime Arresek ez zigun aurrerabiderik eman.

Gaur egun zertan dihardu Sabin Osorok.

Pasiatu, irakurri, siestatxoa egin... lasai bizi naiz. Hemen [Zumaian] egiten ditut denboraldi luzeak eta gustura bizi naiz. Badaukat koadrilatxo bat, neu baino hogeitau urte gazteagoak diren lagunena, eta haiek inbiltzen naiz txikiteoan. Elgoibarren okerrago nabil. Koadrilan bost ginen, bi ez dira iriteten, eta beste hiruretako bat [Julian Iriondo] oraintxe hil zai-gu eta Manolo Jauregi eta biok gelditzen gara orain. Hiru lagun ibili gara urteetan; hiru lagun, hiru alderditakoak. Bitxia da gero hori ere, ezta? Gu bezain ondo konponduko balira denak beste modutan ibiliko ginatke, baina ezinikusi handia dago oraindik politikagintzan dihardutenen artean.

Egiguzu Elgoibarren erradiografia. Horrenbeste proiektutan ibili denak orain ere ikusiko du zerbaiten falta, ala?

Egongo da orain ere zerbaiten premia, baina ez naiz konturatzen. Asetuta nago.

102 gaztetxorekin ekin dio Elgoibarko Izarrak 'Daixola' egitasmoari

Zazpi gazte-koadrila eta hamabi hezitzaile ari dira parte hartzen

Elgoibarko gazte-koadriletan euskararen erabilera areagotzeko sortu du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak taldeak *Daixola* egitasmoa. 9 eta 12 urte arteko gaztetxo-
ei zuzendutako programa da, eta gazteek koadrilaka eman dute izena. Urriaren 26an izan zen *Daixola* programaren estreinako ekitaldia, eta arduradunak "benetan pozik" daude programak gaztetxoaren artean piztu duen ilusioarekin. Zazpi gazte koadrilak eman dute izena, eta guztira 102 gaztetxo eta hamabi hezitzaile ari dira egitasmoan parte hartzen. *Daixola* aisialdiari lotutako programa da, eta asteburuetan antolatuko ditugu, batez ere, ekintzak. Hasierako asmoa koadrila bakoitzarekin astean bi orduz lan egitea da, baina, tarteka, irteera luzeagoak edo asteburuetako planak ere egingo dituzte. Programazioa gaztetxoekin batera prestatuko dute, egingo duten guztia haien gustukoa izatea nahi dutelako.



'De cuerpo presente' antzezlanak ikusteko aukera egongo da gaur zortzi, Herriko Antzokian

Glu Glu antzerki taldeak *De cuerpo presente* antzezlanak taularatuko du datorren barixakuan, Herriko Antzokian. Komedia da. Hil ostean, senidez eta lagunez inguratuta hilkutxan dagoen baten istorioa kontatzen du. Haiek arimarik gabeko hilotza ikusten dute soilik, eta ez dira konturatzen hildakoak han bertan gertatzen den guztia ikusi eta entzun dezakeela. Une batez, munduko pertsonarik onena izango da hildakoa, baina herentzia partitzeko uea iristen denean, denek gehiago esperoko dute, eta orduan hasiko da gatazka. Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Galder Perez, Mari Cruz Melgosa eta Ylenia Baglietto dira protagonistak. Antzerkia 20:30ean hasiko da, eta sarrerak www.kutxabank.es webgunean erosi daitezke.

Ekintzailetasuna sustatzeko tailerra antolatu dute azaroaren 14rako

Debegesa Garapen Agentziak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, datorren azaroaren 14an, ostirala, herritarren artean ekintzailetasuna sustatzeko motibazio hitzaldi-tailerra egingo da Musika Eskolan. *Deskubritu zure pasioa. Nola lortu nahi duzun bizitza* izenburupean, motibazio saio hau Iker Fernandez Abentura Sortzaileak eskainiko du, 18:00etatik aurrera. Herritarrei dago zuzenduta, bereziki ekiteko nahia duten lagunei, baina bultzadaxo bat behar dutenei eta dagoeneko ekintzaile direnei, baina era bateko edo besteko zailtasunak dituztenei. Parte hartzeko interesa dutenek aurrez izena eman behar dute izena, 943 82 01 10 telefonoan. Saioa gazteleraz izango da.

Ordu berean, 18:00etatik 19:30era, *Ametsen Jaia* izango da, eta 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzat tailerrak egingo dituzte Leku Eder parkean, Manahmana enpresa eta Atxutxiamaiak aisialdi taldearekin elkarlanean. Etorkizuneko ametsetako bizimoduak edota ogibideak irudikatzen dituzten helburuarekin, marrazki eta eskulan tailerrak egingo dira.

Ekimena *Debabarrena Bultzatuz* egitasmoaren barruan dago kokatua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Sailak finantzatua –'Gipuzkoa Ekintzailea'– eta Eskualde Garapenerako Europako Fondoak %50ean kofinantzatua (Europa egiteko modu bat).

Haurren eta nerabeen euskararen erabilera aztertzeko jardunaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak

Azaroaren 28an izango da, IMHn

Haurren eta nerabeen euskararen erabilera areagotzeko klabeak aztertzeko jardunaldia antolatu du Elgoibarko Izarra elkarteak, Udalarekin propio sinatu duen hitzarmenaren bidez finantzatuta. Euskaraz dakiten haurren eta nerabeen portzentajeek etengabe gora egiten badute ere, erabilera-dakuekin ez da gauza bera gertatzen. Desoreka nabarmena dago dakiten eta egiten dutenaren artean. Elgoibarko Izarrak, Udalak eta herriko ikastetxeek, beste elkarte eta eragile batzuekin batera, urte asko daramatzate lanean herriko haurrek eta nerabeek euskaraz gehiago egin dezaten. Haien hizkuntza-ohituretan eragitea dute helburua, baina horretarako estrategia argiak behar dituztela azpimarratu dute euskalgintzan diharduten eragileek, eta, estrategia horiek finkatzen hasteko prestatu dute azaroko jardunaldia. Eskola orduz kanpoko jardueretan zentratuko dira, batez ere, eta haurrekin eta nerabeekin lotura zuzena duten sektore batzuk aukeratu dituzte; sektore horietatik zer egin daitekeen aztertzeko. Sektore bakoitzari aditu batek helduko dio, eta orain arteko lanari segida emateko klabe batzuk jasotzea da antolatzaileen helburua.

Azaroaren 28an izango da saioa, goizez, IMHn, eta Euskal Herriko hainbat adituk hartuko dute parte: Kike Amonarriz, Iñaki Eizmendi, Koikili Lertxundi, Jose Mari Agirretxe *Porrotx*, Lorea Agirre edo Naiara Martinek, besteak beste. Elgoibarko IMH ikastetxean izango da, goizeko 09:00etatik aurrera.



Izenematea zabalik

Ez dute jardunaldia adituentzat edo teknikarientzat bakarrik prestatu. Haurrekin eta nerabeekin harremanetan dauden agente eta eragile guztiak izan dituzte kontuan, eta denak gonbidatu dituzte: kirol elkarteak, kultur elkarteak, guraso elkarteak, ikastetxeak, euskara-teknikariak... Azaroaren 17ra arte eman dateke izena, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean (943 744 366) edo Elgoibarko Izarran (943 741 626).

47 lagunek hartu dute parte 2015eko egutegia osatzeko argazki lehiaketan



Arg.: Maite Loiola

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan, 2015eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa

antolatu du, Elgoibarko Txokoak gai hartuta. 47 herritarrek parte hartu dute, eta orotara, 206 argazki aurkeztu dituzte. Epaimahaiak hamabi argazki aukeratu ditu, eta hauek izan dira saridunak: Sara Beristain, Mikel Zengotita, Larraitx Zialtzeta, Oier Ramos, Maite Loiola, Ion Zubiaurre, Zorione Elorza, Alberto Fernandez, Ion Martinez, Ana Loyola, Ander Izagirre eta Miren Gurutze Ariznabarreta.

Argazkiekin batera, Herri Eskola eta Ikastolako umeek eginiko marrazkiak jarriko dituzte hilabete bakoitzean. 113 ikaslek hartu dute parte marrazki lehiaketan, eta hauek izan dira saridunak: Ane Arregi, Naiara Vargas, Jone Gil, Garazi Ines, Nora Barrenetxea eta Oihana Agirregomezkorta Ikastolakoak, eta Alexandra Bocskor, Naroa Gomez, Miren Armentia, Henar Saintin, Sasha Kovalenko eta Eider Ansola Herri Eskolakoak.

Jasone Osorok irabazi du Augustin Zubikarai nobela-beka

Urtebete du orain elgoibartarrak liburua idazteko

Jasone Osoro idazle elgoibartarraren nobela-proiektu batek irabazi du Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Augustin Zubikarai saria. *Sick* du behin-behineko izena Jasone Osororen proiektuak. Berta izeneko emakume baten eguneko 24 orduak kontatzen dizkigu. Ohean datzala Edith Piafen Non, *je ne regrette rien* entzuten, barrutik hautsia, bere bizitzaren errepaso bat eginez eta berekin harreman estua izan duten pertsonaiekin barne-bakarriketan: ama, aita, senarra, alaba...

Urtebete du Osorok proiektua ontzeko eta amaitzeko, eta ondo bidean 2015eko udazkenean ikusiko du liburua argia.

Jasone Osoro (Elgoibar, 1971) kazetaria da ikasketaz, eta prentsa idatzian nahiz



telebistan lan egin izan du, baina batik bat idazle moduan da ezaguna: *Tentazioak* (1998) eta *Korapiloak* (2001) ipuin-liburuak kaleratu ditu, *Greta* (2003) eleberria, *Bi marra arrosa* (2009) saiakera, *Isadora* (1998) biografia, eta gazteentzako hainbat liburu, Jara eta Ezekiel pertsonaienak, besteak beste. Gaur egun, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria da.

Mendaroko nesken ballet taldea finalera iritsi da Gaztea Dantzan lehiaketako



Euskadi Gazteak antolatutako Gaztea Dantzan lehiaketa azken txanpara iritsi da, eta finalerako sailkatuen artean Mendaroko nesken balleteko taldea daukagu. Goiuri Urain, Enara Agirrezabala, Celia Rico, Leire Kerexeta, Marina Rico, Jara Larrañaga, Nerea Arriola, Irati Arrizabalaga eta Ruth Larrañagak osatutako taldeak Michael Jacksonen *Billie Jean* abestia dantzatu dute. Irabazlea herritarren botoen bidez aukeratu dute, eta nahi duenak hilaren 11ra arte izango du bozkatzeko aukera. Irabazlea azaroaren 13an jakinaraziko dute, Euskadi Gazteako Di Da saioan.

Julian Iriondo hil zen urriaren 23an, Udal Musika Bandako eta Parrokiako Abesbatzako zuzendari izandakoa

Julian Iriondo hil zen urriaren 23an, 94 urte zituela. Musikari lotutako bizitza izan du Iriondok. Udal Musika Bandako zuzendaria izan zen 1952 eta 1956 urteen artean, adibidez. 11 urterekin sartu zen Udal Musika Bandan, tronpeta jole moduan, baina tronpetaz gain, tronpa eta tuba ere jo zituen. Era berean, San Bartolome Parrokiako Abesbatzaren zuzendaria ere izan zen urte askoan eta txistulari ere ibili zen. Parrokiarekin lotura estua izan du, gainera, azken-azkenara arte, organo-jole moduan aritu delako, deitu duten aldiro.



2015ari ongi-etorria Elgoibartik egingo dio EITBk

EITBk Elgoibartik emango ditu abenduaren 31ko kanpaikadak. San Bartolome parrokiako eliza izango da, beraz EITBk urteari agur esateko aukeratu duten parrokia. Ez da zuzeneko emanaldia izango, eta oraindik data zehatzik jakinarazi ez badute ere, litekeena da abenduko bigarren asteburuan egitea urte zaharrari agur esateko ekitaldiaren grabazioa.

Magosto jai antolatu dute biharko

Urteroko ohiturari jarraituz, Magosto Jai antolatu du biharko Galiza Kultur Etxeak. 11:00etatik 13:00etara bitartean gaztainak eta Galizako ardoa banatuko dituzte doan, Lekuederren.

Zartako arkulariek emaitza onak lortu dituzte Gasteizko arku-tiro txapelketan

Varonak eta Garciak bosgarren egin dute



Gasteizko Larrabeako pinudian jokatu zuten seigarren Basoko Ibilbidea 3D Kiowa garaikurra, eta lehenengoz parte hartu bazuten ere, fin aritu ziren Elgoibarko Zartako Arkulari taldeko kideak. Javier Varona eta Jose Luis Garciak lortu zituzten sailkapenik onenak: bosgarren egin zuten, bakoitzak bere mailan.

la ehun arkularik hartu zuten parte Kiowa basoko arku-tiraketa sarian, bost mailatan banatuta: Long-Bow, Instintuzko Arku Biribildua, Arku Biluzia, Arku Mekanikoa eta Arku Librea bisore bat edo gehiagorekin. Ehizarako erreminta desberdinak erabili arren, helburu bera zuten guztiak: Larrabeako pinadian sakabanatuta zeuden 20 jaurtiketa guneeetan ahalik eta punturik gehien batzea.

Arku-tiroketa modalitate honetan, izenak erakusten duen moduan, arkulariek hiru dimentsiotako animalien irudiei bota behar dizkiete geziak, bi gezi irudi bakoitzeko. Bihotza izaten duten lekuan joz gero lortzen da puntuaziorik altuena (10 puntu). Biriketan joz gero, 8 puntu ematen dituzte, eta bost puntu gainerako bizi puntuetan joz gero. Jaurtiketa gunetik irudia dagoen lekuraino dagoen distantziaren berri ez dutela izaten da modalitate honetako beste berezitasunetako bat.

CD Elgoibarren bazkide kuotak

CD Elgoibarrek jakinarazi du aste honetan kobratuko dietela jokalarien gurasoei urteko bazkide kuota. Txartelak CD Elgoibarren bulegoetan jaso daitezke.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa 7:45ean irtengo da

Domekan jokatu da Behobia-Donostia lasterketa, eta Kirol Patrnatuak hara joateko autobusa antolatatu du. Izena eman dutenak soilik joan ahalko dira autobus horretan. Autobusa 7:45ean irtengo da, King-Kong-etik.

Korrikedada Udal Zerbitzu bezala mantentzeko eskatu du Elgoibarko PPK

Javier Nuñez PPKo zinegotziak eskatu du Korrikedada egitasmoa Udal Zerbitzu bezala mantentzea. Bere esanetan, Berdintasun Sailetik sortu zen egitasmoa, eta uste du sail horretan bertan mantendu behar dela. Udalak Mintxeta Atletismo Taldeari eman dio Korrikedadaren ardura, eta Nuñezen iritziz hitzarmen bat sinatu beharko lukete Udalak eta Mintxeta Atletismo Taldeak, egitasmoa aurrera eramateko. Berdintasun Sailak izango luke Korrikedadaren ardura, eta Mintxeta Atletismo taldeak jasoko luke egitasmoa aurrera eramateko diru-laguntza. Korrikedada egitasmoak aurrera jarrai dezan nahi du Javi Nuñezek, eta etorkizun hobea ikusten dio Berdintasun Sailaren barruan.

ANTONIO IRIONDO ULACIA

"Kapain"

2014ko azaroaren 4an hil zen, 73 urte zituela.

"Gizonezko batzuk gauzak diren bezala ikusten dituzte eta galdetzen dute; zergatik? Nik arnasten ditut gauzak, inoiz izan ez diren bezala eta neure buruari galdera hau egiten diot; zergatik ez?"

(Bernard Shaw)

Eskerrik asko, Antonio!



Arkaitz Egañak irabazi du Euskadiko ehiza xehe txapelketa, bigarrenkoz

Azaroaren 22an Espainiako Txapelketan hartuko du parte



Euskadiko Ehiza Xeheko txapelketa jokatu zuten domekan Araban, Zambranako ehiza barrutian, eta egungo Gipuzkoako txapelketa den Arkaitz Egaña ehiztari elgoibartarrak irabazi zuen txapelketa, Sol txakurraren laguntzarekin. Debabarrenako eta Gipuzkoako ehiza xehe txapelketak irabazi ostean, bera zen Euskadikoa irabazteko faborito nagusienetakoa, eta ez zuen hutsik egin: Egañak eta Sol txakurrak sei eper ehizatuz zituzten, Francisco Llamas bigarren sailkatuak baino eper bat gehiago, hain zuzen ere. Jose Luis Toledotxiki sailkatu zen hirugarren postuan, hori ere bost eperrekin.

Euskadiko txapelketa irabazita, Espainiako txapelketa jokatzeke sailkapena eskuratu du Egañak. Soriako Castillejo de Robledo herrian egingo den Espainiako ehiza xehe txapelketaren finalerako sailkatze proban parte hartuko du, datorren azaroaren 22an.

Euskadiko Hiru Txirlo txapelketako azken jardunaldia jokatuko dute bihar Aiastian

Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa iritsi da amaierara, eta bihar jokatuko dute azken jardunaldia, Aiastiako bolatokian. Azken jaurtialdiaren faltan, Asola Berriko Bittor Ugarteburu eta Iruzubietako Antolin Agirregomezkorta eta Antonio Ibarluzea berdinduta daude sailkapenean, hamabina txirlorekin. Emakumeen kategorian, San Migel taldeko Aitziber Olaizola elgoibartarra dago lehenengo postuan, 5 txirlorekin. Taldeka, Asola Berri A taldea doa lider 39 txirlorekin, eta 5 puntu gutxiago ditu San Migel A taldeak. Bihar erabakiko da, beraz, txapelketa, 17:00etatik aurrera, Aiastiako bolatokian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Hernani 0 – Haundi 1 (Pref.)
Ikasberri 2 – Elgoibar 3 (Erreg.)
Aloña Mendi 1 – Elgoibar 4 (Jub.)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 2 (Kad. A)
Elgoibar 4 – Urki 0 (Kad. B)
Elgoibar 2 – Eibar 4 (Inf Txiki.)
Orioko 4 – Elgoibar 3 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 2 – Lauburu Ibarra 2 (2B)

ESKUBALOIA

Deca Elg. 23 – Urola 39 (Kad. mut.)
Bankoa Elg. 40 – Pulpo 4 (Kad. mut.)
Beristain Elg. 27 – Ereintza 25 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 16 – Kukullaga 15 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 19 – Kukullaga 30 (Jub. nsk.)
Pneumax Elg. 15 – Eibar 15 (Kad. nesk.)
Hondarribia 22 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8
10:00 Elgoibar – Aurrera (Kad. B)
12:00 Elgoibar – Bergara (Ohorezko Jub.)
16:30 Haundi – Hondarribia (Pref.)

SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8
16:00 Viento Sur Elg. – Alde Zaharra

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8
11:15 Ilkus Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)
12:45 Pneumax Elg. – Ordizia (Kad. nesk.)
17:30 Gabaz Elg. – Donibane (Sen. mut.)
19:30 Alkorta Elg. – Egija (Sen. mut.)
Domeka, 9
9:30 Sukia Elg. – Aloña (Aleb. mut.)
10:30 Sukia Elg. – Aloña (Aleb. mut.)
11:45 Murgil Elg. – Arrasate (Inf. mut.)

PILOTA

Barizakua, 7
20:30 Lagunak – Arrasate (2. maila jub.)
Pala
21:15 Lagunak – Azkoitia (2. maila jub.)
Zapatua, 8
Eskolarteko Txapelketa
16:00 Elgoibar 5 – Elgoibar 3
16:30 Elgoibar 6 – Elgoibar 2
17:00 Elgoibar 4 – Elgoibar 1

ETXEBIZITZAK

- 7 urteko etxebizitza eta bat eginik dauden bi garaje (43m²) salgai, Mendaron. Oso egoera onean. 118m². (3. solairua). Hall-a, 3 logela, sukaldia, 2 komun, egongela eta 20m²-ko terraza. Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Bista ezinhobeak. 27m²-ko trastelekua aukeran. ☎ **616 668 742**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa. ☎ **631 098 995**

LANA

ESKAERA

- 30 urteko emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan, umeak zaintzen, etxeko lanak egiten edo beste edozertan jarduteko prest. ☎ **651 544 858**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **603 743 240**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **689 003 537**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen. ☎ **631 498 697**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **602 846 244**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko. ☎ **636 882 838**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **628 740 765**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientzia. ☎ **632 395 829**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Ume autistekin esperientzia. ☎ **691 073 462**
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Ordu-tegi malgua. Esperientziaduna. ☎ **650 091 685**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **676 602 481**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **602 691 378**
- Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako. ☎ **632 970 524**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **602 820 429**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 705 406**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egingo nuke, jendaurrean lan egiteko doaiak ditut. ☎ **622 501 834**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauez... Ordu-tegi malgutasun handia. Esperientzia daukat. ☎ **626 914 904**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ **606 354 982**
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Agiriak legez ditut. ☎ **602 186 462**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Aukera paregabea! Garajea salgai Urazandin, Kalamua kalean. 24m², eta bost metroko altuera. Irekia da, baina ixteko aukera dauka. ☎ **607 349 070**

PARTIKULARRAK

- Oinarrizko matematika eta finantza eskola partikularrak hartuko nituzke. ☎ **618 022 434**

OSPAKIZUNAK

- 1944an jaiotako kinto bazkaria azaroaren 22an, Sigman. Parrokia aurrean aterako dute argazkia 13:30ean. 50 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 25 00711299009. Azken eguna, azaroak 18.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Lau hektarea eta erdiko etxalde bat daukagu hiru anaiaren izenean. Hiru zatitan banatu nahi dugu, gutako bakoitzak jakin dezan zein den bere partea eta dagokion eskritura egin dezan. Era horretan, anaietako bat hilko balitz sortuko liratekeen arazoak saihestuko genituzke, gutako bakoitzak ondorengoak ere badituelako. Egin genezake zatiketa hori?

Baserri-giroko etxaldeak laborantzarako gutxieneko lur-sailaren arabera bakarrik bana daitezke, eta gutxieneko lur sail hori ezberdina da eskualde batetik bestera eta baita lur horretan dagoenaren arabera. Beraz, ziurren, etxalde hori ezingo duzue zatitu, ezta bi zatitan ere.

Notaritzan esango dizue zatitu ahal duzuen edo ez. Horretarako, baina, etxalde horren eskritura edo zedula edo katastro-ziurtagiria eraman beharko dituzu. Zatitu ezin baduzue, praktikoena zera litzateke: etxe hori tasatzea eta hiruretako bati edo kanpoko beste norbaiti saltzea edoeta anaien artean zozketatzea adostea.

Etxaldearekin gelditzen denak tasazio horren arabera dagokien zatia ordaindu beharko die beste bie.

AHOLKUA: Zatitu ezin daitezkeen ondasunak konplikazioak ekar ditzakete luzarora. Horregatik gomendatzen da egoera horiek lehenbailehen onbideratzea, jabekideek saldu edo errentan eman nahiko balute ere.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Nahikari**, zein ondo pasatu genuen zure egunean! Etxekoek, eta bereziki, Oinatzek eta Aintzak.



• 7 urte badirela, **Galdar!** Zorionak eta muxu handi bat familiakoen partez. Ondo pasa zure egunean.



• Zorionak, **Unai**, urriaren 30ean 3 urte egin zenituelako. Ama, aita eta anaia Asierren partez.



• Zorionak, **Oihane!** 6 urte bete dituzu! Muxu bat etxekoen partez, eta batez ere, Saioa eta Itsasoren partez.



• Zorionak, **printzesa**, gaur 7 urte egin dituzulako. Muxu handi bat, bereziki Duna eta Manexen partez.



• Zorionak, **Ibon!** Urriaren 28an 3 urte, mutil handi! Patxo asko, etxekoen partez.



• Zorionak, **Jakes**, ostiralean 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Elene, Markel eta Jonen partez.



• Zorionak, **pobxolas**, zuen urtebetetzean. Urte urte bizitza koloreztatzen eta koloreak biziarazten! Etxekoen partez.



• Zorionak, **Beñat eta Intza**, 8 urte bete dituzuelako. Aurrerantzean ere segi horrelako jatorri izaten.



• Zorionak, **Intza**, bihar 5 urte beteko dituzulako. Muxu asko, aittitta eta amamaren partez.




• Zorionak, **Unai**, zure hamargarren urtebetetzean. Familia osoaren partez.




• Zorionak, andereño **Lucía**, zure laugarren urtebetetzean. Muxu asko, etxekoen eta bereziki Markelen partez.



• Zorionak, **Marcelo eta Amaia**, asteburu honetan egun handia ospatuko dugulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Maia eta Aier**, 3 urtetxo eta urtetxo bat egin dituzuelako, hurrenez hurren. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Iker eta Lieiren partez.



• **Maule**, zorionak! 3 urte kristonak!



• Zorionak, **Elena**, gaur 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxekoen, eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Pilar**, jada zure hogeigarren Behobial! Animo, zure lagunaren partez.



• Zorionak, **amaxto eta Elena!** Oso ondo pasatuko dugu igandean egingo dugun ospakizunean. Muxu asko aitatxo eta Mariaren partez.



• **Igor** maitea, maitasun osoz, ongi-etorri mundu honetara. Gurasoen, aiton-amonen eta anaiaren partez, mila muxu.

IRIONDO KIROLAK

San Francisco, 37 - Tlf.: 943 74 09 94 - ELGORRANI

7 barixakua

Mintegia

11:45 Makina-erreminta eta industriaren etorkizuna
Makina-erremintaren mendeurrenako ekintzen barruan, enpresa munduko adituek hainbat hitzaldi eskainiko dituzte IMHn.

Makina-erreminta

13:00 Asmaola+ lehiaketa
Gazteentzako enpresa industriaren ideia lehiaketako sari banaketa, IMHn.

Bideo forum

21:30 'El juego del ahorcado'
Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Erakusketa

18:30 Egur arte tailerra
Egur arte tailerreko ikasleek urtean zehar eginiko lanen erakusketa.

8 zapatua

Gaztainerre

11:00 Magosto jaia
Galiza Kultur Etxeak gaztainak eta ardoa banatuko ditu, Lekuederren.

10 astelehena

Hitzaldia

18:00 Gure seme-alabak heziz'
Kalamua guraso elkarteak antolatuta, Teresa Alonso psikologoa izango da hizlaria. Kultur Etxeko sotoan.

13 eguena


Bakarriketa

22:00 'Sergio de Miguel'
Tantaka tabernan.

14 barixakua

Antzerkia

20:30 'De cuerpo presente'
Glu Glu produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.





ZINEA
(HERRIKO ANTZOKIAN)

«Torrente 5
Operación Eurovegas»
7, barixakua: 22:15
8, zapatua: 19:00 / 22:15
9, domeka: 19:00
10, astelehena: 21:30

«Khumba»
9, domeka: 16:30

Azaroaren 14an denon artean diseinatuko dugu Gabonetarako programazioa. Etorri, eta egin zure proposamenak





Azaroaren 22an Zarautzera irteera. Hango gaztelekua ezagutzeko aukera izango dugu. Izenematea azaroaren 19ra arte

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
7 Yudego 8 Zabaleta Goizez: Garitaon. 9 Zabaleta 10 Barrenetxea 11 Ibañez 12 Garitaonandia 13 Etxeberria 14 Fernandez	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

Xelko

instalazioak

* Instalazio Elektrikoak / * Led Iluminazioa
* Komunitate Mantenimenduak

KOMUNITATEKO ANTENAK
T.O.T. BERRIRA
EGOKITZEN DITUGU



GOBERNUAK DIRUZ
LAGUNTZEN DU
450 Euroa arte

Telf.: 680 756 248
e-mail: h.xelko@yahoo.es



>>> Ikusten duzu aldea?
Zure esku ere badago
ZURE SALTOKIA ETA ZU

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA

GOSIERNO VASCO

Nola eragin haur eta nerabeek euskaraz egin dezaten

JARDUNALDIA




2014ko azaroak 28, ostirala
ELGOIBAR • IMHko Areto Nagusia

Izen-ematea: azaroaren 3tik 17ra
www.elgoibarkoizarra.com



FRIDAY MARKET

ELGOIBAR
AZAROAK 14
ORDUTEGIA:
18:00ETATIK 22:00ETARA



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babeslea:

